

## 2018-03-13KO EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko martxoaren 13an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### LEHENENGO GAIA

#### **2018. EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2018ko jarduera ekonomikorako Udalaren Aurrekontu Orokorraren proiektuaren berri eman da. Udalaren beraren aurrekontua da soilik, izan ere, Udalak ez dauka Erakunde Autonomorik, ez beste edozein erakunde edo enpresarik ere. Udaleko lehendakariak aurkeztu du proiektua, eta idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du. Horrekin batera doa

Se da cuenta del Proyecto de Presupuesto General de este Ayuntamiento para el ejercicio económico de 2018. El presupuesto comprende solamente el del propio Ayuntamiento, al no haber Organismos Autónomos u otras Entidades o empresas municipales. El Proyecto es presentado por la Presidente de la Corporación y está

Aurrekontua Betearazteko Araua ere.

informado por la Secretaría-Intervención. Se adjunta también la Norma de ejecución presupuestaria.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera egin da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Hasierako defizitik gabe osatu da eta Udalbatzari aurkeztu zaio, onartu, itzuli edo zuzen dezan.

El Presupuesto está formulado de acuerdo con la legislación en vigor en materia presupuestaria y contable y sobre todo, de acuerdo con la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se ha formado sin déficit inicial y se presenta al Pleno de la Corporación, para su aprobación, devolución o modificación.

Gainera, kontuan hartzen da Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak ez direla betetzen dioen idazkari kontu-hartzailearen txostena.

Además, se tiene en cuenta la legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y con informe de la Secretaría-Intervención del que se deduce que no cumple la misma-

Hala eta guztiz ere, plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazte aldera, 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

En todo caso y a efectos de determinar la obligación de aprobar un plan económico-financiero el cumplimiento se constatará con la liquidación del presupuesto de 2018.

Halaber, Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, 2018-03-06ean egindako bileran, horri buruzko irizpena eman du.

Así mismo la Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración, en sesión celebrada el 06-03-2018, ha dictaminado la misma.

Horren aurrean, haren edukiaren inguruan azalpenak eman eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzak honakoa erabaki du, aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV) eta aurkako 3 botorekin (EH Bildu):

Ante ello y dadas las aclaraciones oportunas sobre su contenido y previo debate, la Corporación acuerda por 5 votos a favor (EAJ/PNV) y 4 en contra (EH Bildu), lo siguiente:

#### ERABAKIA

#### ACUERDO:

Lehen.- 2018rako gastu ez finantzarioaren muga onartzea: 2.138.352,80 €. Edonola ere, gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2018ko aurrekontua likidatzean.

Primero.- Aprobar para 2018 el límite de gasto no financiero 2.138.352,80 €. En todo caso, El cumplimiento de la regla de gasto habrá de verificarse en la liquidación del presupuesto de 2018.

Bigarrena.- Irurako Udalaren 2018ko Aurrekontuari hasierako onarpena ematea. Udalaren beraren aurrekontua da soilik. Hona hemen gastuen eta sarrereren laburpena, kapituluka:

Segundo.- Aprobar inicialmente el Presupuesto de 2018 del Ayuntamiento de Irura. Está formado únicamente por el del propio Ayuntamiento y comprende el siguiente resumen por capítulos:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	621.000,00
2	Zeharkako zergak	30.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	256.000,00
4	Transferentzia arruntak	1.238.000,00
5	Ondarezko sarrerak	10.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	0,00
7	Kapital-transferentziak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	1.200.500,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		3.356.500,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	880.450,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	564.000,00
3	Finantza-gastuak	1.500,00
4	Transferentzia arruntak	325.600,00
6	Inbertsio errealak	1.508.450,00
7	Kapital-transferentziak	75.000,00
8	Aktibo finantzarioak	500,00
9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		3.356.500,00

Aldaketa bakarra dago: 2.500 euroko kreditu gehiago berdintasun programan (guztira 8.000 euro).

Ez da Aurrekontu Orokorra deskribatu errepikapen hutsa delako.

Honela, 2018ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzea hamabost egun baliioduneko epean, erreklamazioak egin ahal izateko.

Aurrekontua onartutzat joko du Udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kapituluka.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eta gero hark administrazio eskudunei bidaliko die.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratu ondoren.

Gainera, aurrekontuaren eta haren aldaketen kopia bat eskura izango dute herritarrek, informazio nahikoarekin, behin

Solamente hay una modificación: 2.500 euros más de crédito en el programa de igualdad (Total: 8.000 euros).

No se describe el Presupuesto General por ser mera repetición del mismo.

Así mismo se aprueba la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria del ejercicio económico de 2018.

Segundo.- El expediente se somete a información pública, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, por el plazo de 15 días hábiles, para la presentación de reclamaciones.

Si no se presentan reclamaciones en dicho periodo, se considerará definitivamente aprobado.

El presupuesto general, definitivamente aprobado, se publicará por capítulos en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.

Una copia del Presupuesto definitivamente aprobado, se remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

Tercero.- El presupuesto entrará en vigor en el ejercicio correspondiente, después de su publicación en la forma señalada anteriormente.

Además una copia del presupuesto y sus modificaciones, estará a disposición de la ciudadanía, para que tengan la suficiente

betiko onartzen den unetik ekitaldia bukatu arte.

información, desde su aprobación hasta el final del ejercicio.

### **EZTABAIDA:**

Alkateak aurkeztu du aurrekontua:

“2018ko aurrekontua 3.356.500 eurokoa da.

-Gastuak aztertzen hasiko gara.

1. atalean, langile-gastuetan 880.450 euroko gastua aurreikusten da. Bertan %1,5eko igoera sartu dugu. Garbitzaileen ordezkioentzat diru-kopuru bat sartu dugu, oporrak eta bajak betetzeko.

2. atalean, gastu arruntetan 564.000 euroko gastua daukagu.

-Apaiz-etxeko alokairua jaisten da.

-Azpiegituraren mantentzeari dagokion partida 85.000 eurokoa da. Egingo diren lanak, hauek izango dira:

-Herri-eskolako galdara aldatu – Kultur etxeko berokuntza-sistema egokitu eraginkorragoa izateko – Trinketeen kantzako argiteria LEDera egokitu – Herrigunean geratzen diren argi batzuk LEDera egokitzen joan (Zillar Kale, Agarre) – Kultur guneko eraikinean argiak LEDera egokitzen joan, zatika – Laskibar bailaran lurreko seinaleak margotu – Laskibar eta Katategi industria eremuetako argiteriaren ebaluazioa – Ibai-Ondo bailarako oinezkoen zubitik pasabidea egokitu, lurra, argiteria – Kultur guneko aparkamendua egokitu ur-putzua ekiditeko – Zillar Kanean aparkalekuak margotu eta ludotekan panelak jarri soinua moteltzeko.

-Eraikinen mantentzea 36.000 euro – Bulegoko tresna informatikoak 42.000 euro – Bulegoko materiala 24.000 euro – Hornidurak, gasa, argindarra eta abar 55.000 euro – Azpiegituren hornikuntza 43.000 euro (Kaleko argia) – Aseguruak 15.000 euro – Telekomunikazioa – Zergak 10.000 euro – Aholkularitza 5.000 euro.

-Kulturan, urtean zehar egiten ditugun jaietarako 55.000 euro (San Migel jaietarako 40.000 euro barne) – Gazteri, Nerabe eta Haurrentzat 20.000 euro – Euskara 7.000 euro.

-Gizarte-kontratuak 57.000 euro – Kultur eta kirol-ikastaroentzat 45.000 euro.

3. atalean, transferentzia arruntei dagokionean, hondakinetan jaitziera bat aurreikusten dugu – Tolosaldea Garatzen agentzian ere bai – Tolomendi - Eudel - UEMA berdin gelditzen dira – Loatzo Musika Eskolako ez dakigu zenbat izango den eta diru-kopuru berdina jarri dugu 54.000 euro.

-Diru-laguntzetan berriz, gizarte- larrialdietarako laguntzetan eta beste zerbitzuetan 25.000 euro. Gizarte-zerbitzuetan, bi atalak ikusita, 82.500 eurokoa izango da – Euskararen 17.500 euroko partida daukagu, euskara ikasteko 5.000 euroko diru-laguntza. Partida berriak sartu ditugu. Tolosa-Euskararen Mahaia sortzeko 1.000 euro, Harituz Tolosaldeako Bertsozaleen

elkarteari 2.000 euro, 28 Kanalari 2.000 euro, Atariari 6.000 euro – Gizarte-  
arloan 7.000 euro, Zaharren elkarteari eta Euskal Funtsari.

-Bi diru-laguntza berri sartu ditugu, bata gaztediari zuzendutako 5.000  
euroko partida, bertako gazteei etxebizitzako alokairua ordaintzen  
laguntzeko, eta bigarrena, beste 5.000 euro, merkataritza sustatzeko  
alokairua ordaintzen laguntzeko.

-Hezkuntzarekin, berdin, Irurako Ikastola eta Irurako Kirol Eskolari 5.600  
euro – Kulturari, Lats Dantza taldeari 3.000 euro – Amets Pilota Elkarteari  
5.000 euro – berria, TAK Oria 1.000 euro, emakumezkoen trainerua  
Tolosaldearen izenean atera nahi duen proiektuentzat.

6. atalean, Inbertsioak, 1.508.450 euro.

-Haur-eskolako obrak 136.000 euro – Udaletxea berritu eta zabaldu 1.300.000  
euro –Proiektua 100.000 euro – Obra 1.200.000 euro – Proiektuaren idazketa  
10.000 euro – Plan Orokorraren 2. aldaketa 10.000 euro – Ekipo  
Informatikoak 5.000 euro – Altzariak (Gimnasioko tresnak) – Leasing 25.000  
euro – Parte-hartzea proiektuak 26.800 euro, printzipioz 10.000 euroko  
partida jartzeko asmoa genuen baina kopurua handitu egin dugu eta 26.800  
euroko partida sartu dugu; Kale Nagusiko Irisgarritasunari emango diogu  
lehentasuna, hori izan delako hitz egindako herritarren eskaera eta kezka  
handienetakoa. Egingo ditugun lanak, hauek izango dira Kale Nagusiko 1-2-  
3 inguruko oinezkoen pasabidea egokitu irisgarritasuna bermatzeko, eta  
espaloia babestu – Kale Nagusian, San Miguel plazako oinezkoen ibilbidea  
egokitu semaforoaren inguruan – Kale Nagusian, garbileku pareko  
oinetzkoen pasabidea egokitu – Helduentzat ariketa egiteko tresna batzuk  
jarriko ditugu.

7. atalean, Irurako Ikastolari 75.000 euroko transferentzia.

-Sarreretan:

-Betiko zuzeneko zergak, tasak, diru-laguntza bat edo beste sartuko direla  
aurreikusten dugu.

-Aurten ez ditugu zergak igoko, beraz, 2017ko zergak mantenduko dira.

-Transferentzia arruntetan, nabarmentzekoa da foru funtsaren igoera, 2017an  
baino 103.000 euro gehiago sartuko dira, eta, beraz, 1.176.000 euroko sarrera  
izango da.”

Beste aldetik, EH Bildu udal-taldeak alegazioa jarri du aurrekontuari  
buruz:

#### 1- “EH BILDU UDAL-TALDEAREN IKUSPUNTU OROKORRA.

Gure ustez, aurtengo aurrekontuetan argi eta garbi azpimarratu  
beharreko gai bat udaletxea berritzeko proiektua da. 2018ko aurrekontuetan  
ezin da proiektu hori sartu, proiektua onartu aurretik Irurako Hiri  
Antolamenduko Plan Orokorra aldatu behar delako, eta aldaketa hau

oraindik alegazio-epean dagoelako (martxoak 9 arte), eta EH BILDUK behintzat, bere alegazioak sartuko dituelako.

EH BILDUren ustez, bi milioiko aurrekontua duen herri batean udaletxea berritzen bi milioi euro gastatzea diru asko da. Urtarrilaren amaierara arte Udaleko gobernu-taldeak esan digu ez dela epe motzeko proiektu bat; orain, berriz, otsailaren erdialdean, aurrekontuetan sartu dute proposamena, 1.600.000 euroko kostua izango duen proiektu bat, eta 1.200.000 euroko kreditua eskatzea dakar berekin, Irurako herria hurrengo 11 urterako hipotekatuz, eta gastuetarako geratzen den dirua asko murriztuz hurrengo hamarkadan, urtero gutxienez 132.000 euro ordaindu beharko baitira mailegu hau ordaintzeko. Proiektua patxada handiagoarekin hartu behar dela eta orain bertan onartu ezinezkoa dela uste dugu.

Bestetik, aurrekontu hauen beste ahulezia bat herritarren eta oposizioaren parte-hartze faltarena da: udaletxea berritzearena Irurako udalak proiektu bakar batean eta kolpetik sekula gastatu duen dirutza handiena suposatzen du, hots, 2018ko aurrekontua %50 garestitzea 2017koarekin alderatuz. 9tik 4 zinegotzi dituen oposizioari otsailaren erdialdera aurkeztu zaio proiektua, aurretik 6 hilabete baino gehiago falta zirenean esanez epe motz eta ertainean egitea aurreikusten ez zen proiektua zela. Informazioa ezkututzen edo gezurretan ibili dira? Edo bi astetan aldatu dute iritziz? Bi kasuetan ere larria da, oso proiektu garrantzitsua delako. Kanean jakinarazi digute ausaz aukeratutako 100 pertsonari 3 galderako galdeketa bat egin ziola alkateak berak, aurretiaz. Horietatik 64 ados agertu "omen" dira udaletxea berritzeko ideiarekin ("omen" diogu, ez daukagulako inongo txostenik horri buruz). Gainera, galdera ere ez dugu ontzat ematen, gure ustez "Zer iruditzen zaizu udaletxea berritzea?" beharrean, "Zer iruditzen zaizu udaletxea berritzen 2 milioi euro gastatzea eta herria 11 urterako hipotekatzea?" izan beharko litzatekeelako. Eta, garrantzitsuena dena, benetako parte-hartzea izateko herritar guztiei eman behar zaie parte hartzeko aukera, ez soilik udal-gobernuak ausaz aukeratu omen dituen 100 aukeratuei. Horri dagokiolarik, udaletxea berritzeko proiektua gelditu eta herritarrekin kontsultatu behar dela uste dugu.

## 2. ZUZENKETA PROPOSAMENAK

### 2.1 Udaletxea berritzeko proiektua: -1.300.000 euro

2018ko aurrekontuetan ezin da proiektu hau sartu, proiektua onartu aurretik Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu behar delako, eta aldaketa hau oraindik alegazio-epean dagoelako (martxoak 9 arte). Horri dagokionez, EH BILDUK behintzat bere alegazioak sartuko ditu.

Proiektu honen aurrean, EH BILDUK proiektua eteteko eta herritarrekin kontsultatzeko jarrera hartu du. Hau da Iruraren lehentasuna? Ezin liteke beste era batera egin? (merkeago, faseka...)

## 2.2 Zahar-etxea: 200.000 euro

2011-2015 legegaldian EH BILDUK martxan zeukan proiektua berreskuratzea proposatzen dugu. Udaletxea berritzen 2 milioi euro gastatu nahi direla ikusita, ez dauka zentzurik 200.000 euroko proiektu hau blokeatuta edukitzeak (%10), herritarrek lehentasun gehiago eman diotenean.

2.3 Dietetarako partida ez igotzea, are gutxiago gastu hori nondik ateratzea aurreikusten den zehazten ez bada (-4.000 euro).

2.4 ATARIArentzako partida mantentzea (2.400 euro). Komunikazio-talde honi emandako diru-kopurua jaistea aurreikusten baita, 2017ko urtearekin alderatuz.

2.5 UDALBILTZAren parte garenez, dagokion kuota ordaintzea (4.000 euro).

UDALBILTZA partzuergo bat da, eta bertan egoteko urteko kuota ordaindu behar da. Edo, bestela, argi esan behar da hortik atera nahi dela. Gipuzkoako udal bakarra gara kuota hau ordaintzen ez duena.

2.6 GENERO BERDINTASUNAREN ekimenak: lantegiak Ikastolan, jabekuntza-saioak, martxoko eta azaroko egunen inguruko hitzaldia eta emanaldiak, jai parekidean lantzeko prozesua eta horrekin lotuta indarkeria matxistaren aurkakoa... /10.000 euro)

## 2.7 HERRIKO KOMERTZIOEN ALDEKO KANPAINAK”

Eta orain hasi da eztabaida udalkideen artean :

Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du oso proiektu handia aurkeztu dela aurrekontuan (udaletxea berritzea) eta gastu horrek hamar urtetan baldintzatuko dituela udalaren gastuak.

Proiektua onartu aurretik patxadaz aztertu behar da, horregatik jakin nahi dute nork eta noiz erabaki duen proiektua aurten hastea, ez ote den informazioa ezkututzen ari, eta zergatik dagoen hainbestearainoko presa proiektu honekin, datorren urteko hauteskundeek ez ote duten zerikusirik.

Alkateak erantzun du proiektu hau herriaren onerako izango dela. Proiektu honen lanketan bi udal-taldek parte hartu dutela, bilerak batzuk egin dituztela eta etorkizunean ere egingo dituztela. Hirigintzako Plan Orokorraren aldaketa aho batez onartu zen eta prozesua aurrera doa, aurreproiektua eginda dago eta. Eraikinak irisgarritasun-baldintzak bete behar zituen dagoeneko, baina ez ditu betetzen eta barruko instalakuntzen araudiak ezta ere. Ezin da itxaron. Mailegua eskatu behar da baina hamar

urtetan ordainduko da eta horrek ez du esan nahi zerbitzuak murriztuko direnik. Herritarrak informatzeko ekintzak burutuko dira. Eta hori esanda zertarako itxaron behar den.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du haiek eskatzen dutena proiektu hau etetea eta herritarrekin eztabaidatzea dela. Kanean jakin dute alkateak 64 biztanlerekin hitz egin duela gai honi buruz eta uste dute herritar guztiek eduki behar dutela iritzia emateko aukera. Bere taldeak ere herritar guztien postontzietara bidali duela galdeketa zer iritzi duten jakiteko, eta digitalki 153 erantzun jaso dituztela. Horregatik eskatu nahi dute udaletxeko proiektua aurrekontutik ateratzeko, herritarrekin hitz egin eta denon artean erabakitzeko.

Alkateak erantzun dio udaletxeko obra sartuta badago, obra hori gauzatu egin behar dela, denok ados gaudelako. Proiektua oraindik ez dela hasi, eta aukera dagoela berraztertzeko: merkeagoa izateko, epeetan egiteko (aukera badago)...

Mikel Iturbe zinegotziak proiektu hau nola hasi den azaltzeko eskatu du. Diru-laguntzak eskatzeko aurreproiektua idatzi behar zen eta horrekin ados zeuden. Udaletxea berritzeko eta etorkizunean ez mugatzeko Plan Orokorra aldatu behar zen, eta ados zeuden ere. Baina handik proiektua egin eta obra aurrekontuan sartzerara pasa direla, inor ohartu gabe. Hainbat aldiz galdetu dute aurrekontuari buruz (abenduan eta urtarrilean) eta ez dute erantzunik jaso eta otsailaren erdialdera jakin dute aurrekontuan sartuko zela.

Alkateak erantzun dio egia dela aurreproiektua diru-laguntzak eskatzeko prestatu zela, baina ikusita zer behar dauden aurrera jarraitu dela.

Jose Ignacio Imazek adierazi du azpimarratzekoa dela alkateak esan duena (prest daudela hitz egiteko) eta ez bakarrik Bildurekin eta PNVrekin, baita herritarrekin ere. Baina haiek nahi dutena proiektua geldiaraztea dela, eta horren aurka bozkatuko dutela aurrekontuan, baina benetan espero duela proiektuari buruz hitz egingo dutela. Oso proiektua garrantzitsua dela eta denbora behar dutela aztertzeko, eta orain ezin dutela horren inguruan erabaki.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du aurrekontuan proposatzen dutela antzinako plazako zahar-etxean taberna jartzea, Bilduk aurreko legealdian martxan jarritako proiektua aurrera eramatea nahi dutela.

Alkateak erantzun dio martxan dagoela deialdia, lokal horren erabilerari buruz interesatuek proposamenak aurkez ditzaten.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du udalerriko dendetan kontsumoa areagotzeko kanpaina egitea dela beste proposamena.

Alkateak erantzun dio ez dagoela oztoporik eta proposamenak egiten badira aztertuko dituztela.

Jose Ignacio Imazek adierazi du Atariaren diru-laguntza gutxitu dela eta bere proposamena joan den urteko kopurua mantentzea dela, ildo horretatik, euskararen zinegotziaren azalpena eskatu dute.

Marta Castrillo zinegotziak adierazi du Atariko arduradunekin bildu zirela eta akordio batera iritzi zirela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak erantzun du bere ustez Udalaren ezarpen bat dela, eta ez direla adostasun batera iritsi egunkariarekin.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du Irurako Udala Udalbiltzaren kide dela, eta, ondorioz, dagokion kuota ordaindu behar duela, bestela hoberena erakundetik ateratzea dela.

Alkateak erantzun dio Irurako Udala Eudel-en dagoela eta lerro politiko guztietako udalak ere bertan daudela, eta horregatik pentsatzen dutela Udalbiltzari ez diotela kuotarik ordaindu behar.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du beste proposamen bat berdintasun-programen partida igotzea dela.

Alkateak erantzun dio bost mila eta bostehun euro daudela eta Bilduk hamar mila euroraino igotzea eskatzen duela. Zortzi mila jartzea eskaini du. Proposamena onartu dute.”

## BIGARREN GAIA

### 2018. EKITALDIRAKO IRURAKO UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2018ko Aurrekontuarekin batera 2018ko Irurako Udaleko langileen taldea aurkeztu da.

Con el Presupuesto de 2018 se presenta la Plantilla de 2018 de este Ayuntamiento.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, 2018-03-06ean egindako bileran, horri buruzko irizpena eman du.

La Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración la ha dictaminado en la reunión el 06-03-2018.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hartu du honako:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

#### ERABAKIA

#### ACUERDO

Lehenengoa.- Behin-behineko onarpena ematea.

Primero.- Dar la aprobación provisional al mismo.

Bigarrena.- Espedientea eta Udal Aurrekontua jendaurrean jartzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean

Segundo.- Someter el expediente a información pública, junto con el Presupuesto municipal, mediante anuncio en el Boletín

argitaratzea, erreklamazioak egin ahal izateko.

Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, al objeto de poder presentarse reclamaciones.

Espedientea behin betiko onartu dela joko da jendaurrean jarritako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada. Behin betiko onartuz gero, langileen taldea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Se dará por aprobado definitivamente el expediente, si no se presentan reclamaciones en el periodo de información pública. Una vez definitivamente aprobado la Plantilla será publicada en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

OHARRA: eztabaida osoa "[www.irura.eus](http://www.irura.eus) udala-udalbatzak" helbidean jasota dago.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bilera amaitutzat eman du 20:05ean. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA